



Capak Parisen 1944eko abuztuaren 26an egindako argazkia.

Robert Capa argazkilariaren lan erretrospektiboa Bilbon ikusgai

G. A. / BILBO

Gerrari buruzko munduko argazkilariarik onena izan den Robert Capa hungariarraren atzerabegirako erakusketa izango da Bilboko Arte Ederretako Museoan datorren maiatzaren 31a arte. 'Robert Capa: Atzera begira 1932-54' erakusketa zuri beltzeko 160 argazki biltzen ditu bere baitan. Bilduma hauxe Iruñean izan zen ikusgai urte hasieran.

«Zure argazkiak nahiko onak ez badira, ez zara behar beste urreteratu», bere argazkilari lankideei ematen zien aholkua jarraitu zuen Robert Capa kazetaritza grafikoaren mitoa bihurtu zen. 1913tik-1954ra arte bizi izan zen Capak, gerraren ikusgarritasuna eta protagonisten sufrimendua isladatu zituen aldi berean bere argazkietan.

«Nire anaia argazkilari, kazetari eta gizon grinatsua izan zen, bere inguruan izan ziren gertaerak begirada zorrotzagaz ikusi zituena. Hogeitamabi urtetan lanean ihardun zuen denboraldian, mundu zabaleko kataklismoen lekukoa izan zen. Gizonak berak sorturiko inperuaren berrie-male izateko ardura hartu zuen, gerraren berri ematearena, hain zuzen ere». Hola definitzen du Cornell Capak bere anaia zen Robert.

Argazkigintzaren klasiko bat den Caparen atzerabegirako erakusketa Iruñean izan zen urtarrila eta otsaila aldera, eta orain, berriz, Bilboko Arte Ederretan izango da maiatzaren 31a arte,

ondoren EEBBn bueltatzeko. La Caixa Fundazioak ekarritako erakusketa zuri beltzeko 160 argazki osatua dago.

BOST GUDATAKO BERRIEMALEA

1932-54 urteen bitarteko erakusketak, Capak bizi izan zituen bost gudetan ateratako argazkiak biltzen ditu, baita, 30. hamarkadako Pariseko bizitza politikoa zein egunero-koaren argazkiak zein 'Life' aldizkariako EEBBn egin zituen zenbait lan ere.

Berrogeigarren hamarkako Frantziako uda aldeko argazkiak edota Picasso, Ernest Hemingway edo Ingrid Bergmanen bezalako pertsonaien erretratuei abegi ematen die hilabete batez Bilbon izango den erakusketak.

Erakusketari bukaera ematen diote Robert Capak bere bizitzaren azken urteetan egin zituen lanen adibide zenbaitzuk; Japoniako haurrak (1954) eta frantziar soldaduak Indotxinako gerran.

Espainiako Guda Zibilari buruzko argazkiek garrantzi handia dute Caparen erakusketan, Madrilgo bonbaketa, errepublikarrak maletakin barrikadak eraikitzen, milizia Aragoa-n eta abar. Argazkigintzaren klasiko honek, gerrako hiritarrak betikotzen ditu, bonaketetatik alde egiten duten etxebizitzarik gabeko hiritarrak... Argazki hauen artean 1937. urteko maiatzean Bilbon ateratako bat aurkitzen da, hain zuzen ere, gerra hegazkinei begira dauden zenbait bilbotarren argazkia.

Bacon, azken pintore garaikideen artean handienetarikoa, zendu da

Madriren hil da eta datozen egunetan gorpua Londresera eramango da

F Francis Bacon pintore irlandarra atzo hil zen Madriren oporretan zegoela bihotzekoak jota, laurogeitahiru urte zituelarik. Datozen egunetan Londresera eramango dute eta bertan familiarterako hileta egingo da. Expresionismo britaniarraren sortzaile eta Picassorekin batera, mende honetako pintorerik handi eta eraginkorrenetakotzat hartua izan da Bacon.


MADRIL

1909an jaioa Dublinen, pinturaren munduan beti autodidakta gisa aritu zen. Bere pintura produktioan berezitasuna, independentzia eta bizitzaren alderdi tragikoa dira nabarmen. Eginiko erretratuak eta 'Gurutztatu' izeneko koadro ezaguna, dira bere lanik aipagarrienak eta lan horiei esker lortu zuen arrakasta.

Joseph Turner paisajistaren —XIX mendean pintura munduan iraultzaile izan zena— ondoren, Erresuma Batuko pintorerik handiena izan denaren bizitza, jenio guztien antzera, kontraesankorra eta iskanbilatsua izan zen. Jokozale eta edarizale amorratua zen.

Bere arte lanen balioaren inguruan polemika handiak sortu badira ere, arte kritikari guztiak bat datoza, Baconen koadroak ahaztea zaila dela esaten. Bere lanik ezagunen truke izugarriko dirutzak ordaindu izan dira.

Familia ingeles aristokratiko bateko semea zen. Gaztetatik ezagutzen zaio bere izaera errebeldea; 16 urte zituela etxetik botatu zuten. Gerra arteko epeak Berlinen eta Parisen bizi ondoren, 21 urte zituenean zabaldu zuen bere lehen pintore tailerra Londresen eta surrealismoan lehen urratsak eman zituen. Garai horretako hamar koadro besterik ez dira geratzen, egileak berak txikitu bait zituen, Picassoren eragina nabarmenegia zela eta.



Francis Bacon laurogeitahiru urte zituelarik hil da.

✓ Autodidakta izaki, ez zuen ikasketa teknikorik izan. Atzamarrak, pintzel xahutuak eta oihal zatiak erabiltzen zituen buruan zituen efektu piktorikoak lortzeko.

Autodidakta izaki, ez zuen ikasketa teknikorik izan. Hatzamarrak, pintzel xahutuak eta oihal zatiak erabiltzen zituen buruan zituen efektu piktorikoak lortzeko. Kulturako esparru guztiak inspirazio iturritzat hartzen zituen pintore honek, ez zuen inoiz bere obraren inguruko azalpenik eman nahi izan. Koadroek ezer ere ez zutela kontatu behar defendatzen zuen.

Erresuma Batuko lehen pintorea izan zen, bizirik zela erakusketa monografiko bat izan

zuen. New Yorkeko museo Metropolitanon bere artelan guztiak bildu ziren. Erakusketa bera 1988an Berlinen murruren ekialdean jarri zen ikusgai. Bere bizitzan zehar, galeria eta museo garrantzitsuetan izan ziren bere lanak. Besteak beste, Londreseko Tate Galleryn (1962), New Yorkeko Guggenheim museoan (1963), Pariseko Grand Palaisen (1971) eta Mexikoko Arte Modernoko museoan (1976) egon dira zintzilic Baconen koadroak.

Bertso kronikari zuzenketa

Atzoko 'Bertso k onika-n' huts txiki baina garrantzitsua egin genuen gure erredakzioan, Anjel Mari Peñagarikanoren bertso baten transkripzioan (entzuleen artean zegoen neska bati mai-tasun aitormena egin behar izan zioneko). Honako hau da atzo gaizki eman genuen bertsoaren transkripzio zuzena:

Tratu koxkor bat egin gentsake
hemen oker edo zuzen,
lehen publikoan esan det eta
elkarganatu gaitzen;
amesten nuen neska polita
hau bezelakoxea zen,
behin behar eta egi bihurtu
'Aldaz Gora' ta Gamizen,
atoz nerekin ikus dezazun
ni zeinen goxoa naizen.

MAIATZAREN 1EKO ZUBIAN

Euskaldunak nora, **Egunkaria** hara

MAIATZAREN 1ETIK 3RA ARTE SALGAI IZANGO DUZU ONDORENGO HERRIETAN

SANTANDER

Mioño/Castro/Colindres
Arenillas/Oriñon
Laredo/Noja/Isla
Ajo/Santoña

BURGOS

Villasana de Mena
Espinosa de los Monteros
Villarcayo
Medina de Pomar

LA RIOJA

Anguziana/Najera
Cenicero/Briones
Fuenmayor/San Vicente
San Asensio

Belagoako Aterpean eta Asolazeko kanpinean ere eskura izango dituzu